

<< Euskal antzerkia gaur eta bihar >>

F. Bernués eta taldea

Área 2- Creación y Expresión Artística

2. Arloa: Sorkuntza eta Espresio Artistikoa

(Euskarazko bertsioa)

Febrero, 2003ko otsaila

Euskal antzerkia gaur eta bihar

Kontuan hartuta Arte Eszenikoak, oro har, eta Antzerkia eta Dantza, bereziki, ondare publikoak direla, erakunde publikoek horiek zaindu, ordenatu eta sustatu egin behar dituzte, beste alor batzuekin egiten den bezalaxe (osasuna, hezkuntza, komunikazio-sistemak, segurtasuna eta abar). Gaur egun produkzioari eta emanaldiari dagokien egoeraren arabera – ekonomian zerbitzu publiko gisa definitzen denarekin bat dator–, oro har, gaur egungo egoeran eta legeetan oinarrituta, etorkizunean egin daitekeenaren inguruan zenbait ohar ezarri dira, Arte Eszenikoekin lotura duen oro hobeto garatzeko aukera emango duen benetako egitura arazoizko denbora-tarte batean lortzeko.

Antzerkiaren munduan aktiboki eta sendotasunez hogeita bost urte egin ondoren – dantzaren munduan bidea laburxeagoa izan da hala ere–, badirudi argitzeke zeuden enigma batzuk argitu direla. Gainera, produkzioari diruz laguntzeko politika ere abian jarri da, batez ere, udalen eta diputazioen ahalegin ekonomikoari esker herri gehienek ekarpenak egin dituzten heinean. Politika horren bidez, Sarean argi ikus daitekeen mapa bat sortzen joan da, eta mapa horretan, hain zuzen ere, erakutsi beharko liriteke nolabaiteko konstantziaz euskal sortzaileen produkzioak.

Batez ere produkzioari dagokionez enpresa-sare sortuberrira badagoen arren, Sarea esparru hori antolatzeko eta arrazionalizatzeko ahalegina egiten hasi den arren, oraindik ere hutsune garrantzitsuak daude, premia larri baten adierazgarri direnak; izan ere, sektorearen hazkunde jasangarria lortzeko, eta kalitate eta etorkizun handiagoko parametroen barruan garatu ahal izan dadin, beharrezkoa da ongi zehaztutako egiturak sortzea.

Elkarrizketa luzeak izan ondoren, proposamenak berrikusi eta besteen esperientziak bildu ostean, ondorio honetara heldu gara: etorkizunean eboluzionatzeko benetako aukerak izateko, Eusko Jaurlaritzak zuzenago hartu behar du esku. Horretarako, beharrezko, eraginkor edo egokitzat jotzen baldin badu, eta inplikaturik dauden alderdi guztiek parte hartuko luketen prozesu luze batean sakon landu ondoren, berariazko lege bat onartu beharko luke. Lege horren bidez, Arte Eszenikoak euskal gizartearen zati handienak eskura izango duen ondasun publikoa izatea lortzeko esparru egokia finkatuko da.

Ekintza politiko erabakigarri hori ebatzi gabe, esan liteke, lehenik eta behin, Kultura Sailaren organigraman leku jakin bat sortu beharko litzatekeela, aurreikusitako helburuak lortzeko, mantentzeko eta finkatzeko egin beharreko ekintzak bultzatu, bideratu eta laguntzeko. Leku jakin hori Arte Eszenikoen Euskal Erakundea izan liteke; erakunde horrek proiektu osoa garatzeko behar diren gainerako tresna, erakunde, bulego edo produkzio-unitateak eduki beharko litzuzke.

Garatu beharreko lau arlo garrantzitsu hautematen dira: prestakuntza, produkzioa, emanaldiak eta zabalkundea.

PRESTAKUNTZA

Gutziz beharrezko eta premiazkoztat jotzen da Arte Eszenikoen Goi Eskola sortzea, bertan antzerki eta dantzako ikasketak irakasteko, legeek ahalbidetzen duten kategoriarik handienarekin. Santiago Berrutxagak Hezkuntza Sailerako egindako azterketa sakon batean helburu hori lortzeko dauden aukerak aipatzen dira. Nahi izanez gero, azterketa hori Hezkuntza Sailean eska daiteke.

Oro har, uste dugu eskola integralak izan behar dutela, diziplina eta genero guztiak eskainiko dituztenak. Oinarrrian interpretazioa eta dantza egongo dira, baina goi-mailako ikasketekin osatu ahal izango dira: zuzendaritza, antzerkigintza edo koreografia, eszenografia eta ikuskizunen teknologia. Horien kokaleku zentrala eta lehendik dauden tailerrekin izango duten harremana aztertu behar dira; izan ere, komeni da arte-diziplina horien ikaskuntza arautua ez izatea eta eskola-eremuaren esparru zabalera heltzea, bai eta aisialdi aktiboko aukera bat izatea ere.

Ikerketarako nukleo batzuk sortzeko aukera ere aintzat hartu behar du, eta zirkua, kale-antzerkia eta haurrentzako antzerkia bezalako berezitasunak ere kontuan izan behar ditu. Dantzari dagokionez, hiru ildo jorratu behar ditu: folklorikoa, klasikoa eta gaur egungoa.

PRODUKZIOA

Produkzioaren arloan, bereziki antzerkiarekin loturiko produkzioan, egoera aurreratuagoan gaude. Etengabe ikuskizunak produzitzen dituzten konpainiak, taldeak eta produkzio-etxeak daude. Diru-laguntzen prozesu logikoaren baitan, urtero gutxienez ikuskizun bat produzitzen da, nahiz eta gero zaila den emanaldien merkatuak produzitutako guztia xurgatzea. Euskal antzerki osoaren kalitateari, bertualtasunari eta merkatuari buruzko azterketa sakona egitea komeni da, indartzen lagunduko duten neurriak hartu behar diren ala ez erabakitzeko. Neurri horiek, betiere, hertsiki errespetatu beharko dituzte ekimen pribatuak eta aukera estetikoak.

Hori dela eta, egokitzen jotzen dugu bi produkzio-ildo ezartzea: batetik, publikoa, Produkzio Unitatearen bidez, eta, bestetik, pribatua, lehendik dauden proiektuak sendotasun-maila handiagoaz indartu eta garatzeko aukera emango duen diru-laguntzen politika batekin. Ildo pribatua hitzarmenen eta kontratu-programen bidez gauzatuko da, eta edozein ekimen zirkunstantzial garatzeko eta produzitzeko behar duen laguntza jasotzeko aukera emango zaio. Bi aukerak, bai publikoa eta bai pribatua, osotasun globalizat joko dira eta, beraz, elkarren osagarriak eta irekiak izan behar dute, bereziki, sortzaileei dagokienez.

Produkzio Unitatea

Gure aburuz, beharrezkoa da titulartasun publikoa duen Produkzio Unitate bat sortzea, merkatuan esku hartuko duena, antzerkiko eta dantzako sorkuntza baldintza ezin hobeeetan bultzatzeko. Halaber, tamaina, oihartzun sozial eta garrantzi kultural handiagoko produkzioak ere bere gain hartu ahal izango ditu. Agian, garrantzitsuena Produkzio Unitatea sortzea erabakitzea da, euskal antzerkiaren errealitatera gaur egun eta epe ertainean ongien egokituko den produkzio instituzionaleko unitatearen eredia zehaztu ondoren. Premisa nagusi eta bakarra hau da: eredia adostu egin behar dela eta, betiere, lehendik dagoena bultzatu, osatu eta bizkortzea izango duela helburu. Esparru guztietan, lehendik horretan ari diren profesionalak aintzak hartzeko ahalegina egin behar da.

Lehenik eta behin, iruditzen zaigu bideragarriena eredu mistoa dela, hasiera batean antzoki finkorik ez duena; hau da, entseatzeko leku bat edo batzuk edukiko ditu, baina ez du estreinaldiarako egoitza finkorik izango. Hala ere, aukera hori ez da baztertu behar, aurrerago ezar baitaiteke.

Eztabaidatu beharrezkoa antolamendua da, baina hasiera batean, aproposena litzateke egitura administratibo minimoarekin eta guztion partaidetzarekin programazio-atal bakoitzean oinarri estetikoak eta indar-ideiak eratzen joatea, profesionali horiek gauza ditzaten eskatzea, eta koprodukzioak sustatzea, emaitzen arabera garrantzi handiagoa izatera heltzeko. Ez dirudi komeni denik, ez behintzat lehenengo etapan, konpainia egonkorrik sortzea, baina bai proiektuak elikatuko dituzten sortzaileen poltsa bat finkatzea.

Jarrerarik handiena izanda, pentsa daiteke denboraldi bakoitzean hauek egin daitezkeela: formatu eta aktore-multzo handiko ikuskizun bat, formatu ertaineko 2, hizkuntza bietan, haurrentzat formatu ertain-handiko antzerkia euskaraz eta dantza-ikuskizun bat.

Diru-laguntzak eta laguntzak:

Ez da inolako subentzio eta diru-laguntzen eredurik baztertzen, ez lehendik dagoena, ez eta txostengile batek proposatzen duena ere; horretan, ikusleak dira erregulazio-faktore eta emanaldiak egiteko espazioak ere kontuan hartu behar dira. Kasu guztietan, neurrizko konpainia- edo gune-kopurua izan behar da –bai antzerkian, bai dantzan–; hainbat urteko kontratu-programa baten bidez kontzertatuta egon behar dute, eta berritzeko aukera izango da. Egonkortasuna eta emanaldiek izan behar dute lehentasuna, eta, beraz, laguntza horrek mantentze-lanak, produkzioa eta birak egiteko laguntzak izan behar ditu barnean.

Agian, generalistak, sorkuntza propioa, kalea, txotxongiloak, haurrentzako emanaldiak, hizkuntza berriak eta beste asko elementu osagarriak izan daitezke, merkatuko aukera guztiak bildu ahal izateko.

Birak

Barneko birak Sarea tresna eraginkor gisa erabilia eta politika orokorrean txertatuta negoziatu behar dira, behar diren administrazio- eta eraginkortasun-zehaztasun guztiekin. Badakigu SAREAn formula berriak proposatzen ari direla, Koordinazio Bulego bat ireki baita. Hartuko diren neurri guztiak bateragarri izatea eta txosten honetan azaltzen denaren norabide bera izatea espero dugu. Izan ere, ikuskizun-areto gehienak udalenak dira.

Birek laguntza izan behar dute, laguntza orokorretako esparru batean, hitzarmenak arautzeko moduaren arabera; araudiak ahalik eta objektiboena eta kuantifikagarriena izan behar du, eta kontinente batetik besterako bidaientzat salbuespenak ezarri behar dira, esparru administratiboak baino lehenago erabaki behar baitira. Automatismorako joera duen zerbait.

Institutu edo Zuzendaritza Nagusiak, gainera, lehentasun eta ekintza bereziak zehatz ditzake, esportazioak areagotzeko erabili beharreko beste diru-kopuru batzuetan sartuko liratekeenak.

Proposamen bat

Euskal produkzioen presentzia bermatu behar da ferietan, jaialdietan, hitzarmenetan eta gero kontratatzeko aukera emango duten programatzaileak egon daitezkeen gainerako lekuetan; hori dela eta, ekintza horiek guztiak orokorrean aztertzea proposatzen da, bai eta Madrilen antzerkigune duin bat izateko aukera –euskal produkzioak segurtasunez eta koherentziaz erakusteko aukera emango duena– serioski aztertzea ere.

Antzoki bat erosteko, alokatzeko –bakarrik edo beste norbaitekin batera– proposatzen da, beste autonomia-erkidegoekin parteka daitekeena, eta estatuko programatzaile gehienei euskal produkzioak aurkezteko aukera emango duena. Aukera hori lortzeko modu asko daude, eta, guztiek diru-kopuru handia inbertitzea eskatzen dute, baina, baliteke, esportatzen laguntzeko modurik egokiena izatea. Ekintza hori berehala egin daiteke, egiturazko beste erabaki batzuk hartu arte itxaron gabe.

ARTE ESZENIKOEI LAGUNTZA LOGISTIKOA EMATEKO ZENTROA

Orain arte konpainia, talde edo produkzio-etxe bakoitzak bereak diren biltegiak, tailerrak, furgonetak, argiztapen-ekipoak, teknikariak eta espezializatutako langileak ditu. Lan-esparru berri bat sortzen denean, energia handia erabiltzen da erakunde juridikoa sortzeko, paperak egiteko, bulego bat bilatzeko, faxa lortzeko, kudeaketa-ekipoak lortzeko eta abarrerako.

Horretan guztian eta emanaldi-egun bateko ohiko arazoengatik inguruan hausnartu ondoren, Arte Eszenikoei laguntza logistikoa emateko zentroa sortzea proposatu da; horien esparruko bazkideen dekoratuak egoera onean gordetzeko aukera izango da, argiztapen- eta soinu-ekipo guztiak izango dira, bai eta teknikariak eta kudeaketa-bulegoa ere. Ikuskizunak banatzeko gune handi bat izango litzateke; horrek onura asko ekarriko litzateke, baina, batez ere, laneko kalitateari dagokionez.

Dekoratuak gordetzeko, eraikitze eta konpontzeko leku egokia badago, berriaz trebatutako eta lana bana dezaketen teknikariak badaude eta garraiobide egokiak eta horiek kargatzeko, deskargatzeko eta muntatzeko langile trebatuak badaude, konpainiek, langileek, ikuskizunak eta ikuskizun-aretoek onurak izango dituzte; izan ere, ikuskizun-aretoen mantentze-lan teknikoetarako hitzarmenak egin daitezke eta ikuskizunak beti langile kualifikatuekin eta lana ezagutzen dutenekin egingo direla bermatuko litzateke.

Enpresa mistoa izango litzateke, nahi duena izan daiteke bazkide, eta bazkide berrientzako bulego txikiak alokatzeko aukera izango luke. Aukera ugari daude, eta azkenean interesatzen bada, xehe-xehe garatuko da. Guztia zehatz-mehatz aztertu beharko litzateke, zenbat metro karratu behar diren jakin, bideragarritasun ekonomikoaren azterketa egin eta proiektua martxan jarri behar da. Udalerriaren bateko alkateak proiektuan parte hartzeko interesa azaldu du.

Uste dugu proposamen hau berehala aztertu behar dela, zeren eta, baztertu ez du ezer baztertzeko, baina jarduera arrazionalizatzeko urrats handia izan daitekeela dirudi.

EMANALDIA

Aretoak

Arte Eszenikoen zuzeneko emanaldietarako instituzioetako eraikuntza guztiek – gehienak udalena dira –, aukeratzeko askatasun osoarekin, Gobernuaren laguntza edo beste laguntzaren bat izan behar dute, alderdiek behar bezala adostutako programazio-urratsak bete ditzaten, baina politika orokorra osatzen lagun dezaten. Kontuan hartu beharreko zenbait ekintza aztertu eta arautu behar dira:

- Laguntzak eta subentzioak ikusleari laguntzearekin eta programazio-konpromisoarekin lotzea

- Bertako konpainiak eta aholkulariak: Guztiontzako aberasgarriak diren aukera horiei lehenetsuna emateko esparrua ezartzea, alegia, sortzaileentzako etengabeko erreferentzia dutelako eta lokalerako publikoki eta aktiboki erabiltzeko modu berriak bilatzeko. Aurrekari asko daude, baina dirudienek, injerentziarik ez eragiteko, ekimen horiei lekutik batetik lagundu behar zaie.

- Ikusle berriak erakartzeko eta lehendik dagoenaren leialtasuna lortzeko, estrategia komunak sortzea.

Jaialdiak eta feriak

Jaialdi hitzak zehazki zer esan nahi duen jakitea zaila da. Baina programazio ugari egiten dira deialdi horietan. Banan-banan aztertuta, guztiek dute zentzua –tokiko zentzua, behintzat–, baina egokia litzateke Eusko Jaurlaritzaren laguntzak jaso ahal izateko arau egokiak ezartzea; halaber, gobernauak lehentasunak finkatu beharko lituzke.

Atal hauetan, gutxienez, bereizketa bat proposatzen da: jaialdi generalistak, kale-antzerkia, antzerki garaikidea, txotxongiloak, haurrentzako antzerkiak, zirkua eta umorea, dantza garaikidea eta genero guztietako dantzak.

Politika orokor baten barnean, lehendik daudenak edo, batzuetan, erreferentzia izango diren sortuberriak aipatu behar dira; horien alde egingo da garrantzi handiagoa izan dezaten, ez kanpokoak soilik, barnekoak ere bai, eta emanaldia egiten den lekuan egiten dela ere, bertara joateko beharra sor dezaten. Horregatik, ez da gomendatzen lurraldearen arabera ehunekoen bidez ezartzea, eraginkortasun-estrategien bidez, baizik. Gainerako jaialdiek interesaren eta eragin orokorraren arabera laguntza izan behar dute.

Gaur egun, estatuan oihartzuna bi feria daude Euskadin: Leioa eta Donostia. Gaur egungo egoera ikusi behar da, sustatu edo interes orokorrean egokitu eta indartzen lagundu behar zaie. EAEko produkzioak, dantza edo haurrentzako antzerkia eta antzeko sektore jakinei laguntzeko, ezaugarri horiek dituen beste plataformaren bat behar ote duen azter daiteke.

INFORMAZIOA

Antzerki-artxiboa

Produzitzen den guztiarekin artxibo bat egin behar da. Hau Komeria-k bideoak ditu eta ARTEZ aldizkariak azken 5-6 urteetan hemen produzitutakoaren txosten gehienak ditu. Horiek kontserbatzeko leku eta ardura teknikoa bilatu behar da.

Dokumentazio-zentroa

Garai batean asko hitz egin zen Dokumentazio-zentro hau sortzeko aukerari buruz; badirudi iritsi dela aukera hori benetan gauzatzeko unea. Baina horrek ez du balio behar orain arte egindakoa geldiarazteko: artxiboa. Aitzitik, prozesu baten amaiera izan behar du. Proiektu egingarri bat garatu behar da: produkzio-unitatearen edo eskolaren eranskina izan beharko luke, edo bestela, institutuan egon. Hortik, nazioartean ezagun den dokumentazio-fondo arinak sortu behar dira, beraz, nolabait unibertsitatearekin lotuta egon zitekeen.

Zentro honetan komunikazio-politika diseinatu eta egin beharko litzateke: aldizkariekin, egokiak izan daitezkeen irrati- edo telebista-programekin, ildo editorial propioa izango duena – edo lehendik daudenak osatuko dituenak– eta ekintzarako eta hausnarketarako gunek izango dena. Beraz, horretatik hurbil euskal Antzerkiaren Museo bat sortzeko aukera kontuan hartu behar da, bai eta EAEn dagoen Zirkuaren Museoa indartzeko aukerarik badagoen aztertu ere. Halaber, oro har komunikazio- eta informazio-esparru hau lortzen lagunduko duten beste ekimen publiko zein pribatuak martxan jartzeko aukera aztertu behar da. Erakundeen arteko loturak ez du fisikoa izan behar, aurrerapen teknologikoei esker, artxibo- eta bibliografia-fondoetara tokian bertan egon gabe sar baitaiteke.